



GAINTZAKO UDALA

Iragarkia

Gaintzako Udaltzarrak, 2018ko martxoaren 27an eginiko bilera berezian, behin-behineko izaeraz 2017 ekitaldiko 1. Kreditu aldaketa: kreditu gehigarrien motakoa onartu zuen.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 15.1 artikuluan dioena jarraituz, jendeari ezagutzera ematen zaio, ondorengo arau hauen arabera:

- a) *Erakutsita dagoen lekua*: Idazkaritza Kontu-hartzailletza.
- b) *Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea*: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita.
- c) *Honako hauek jar ditzakete erreklamazioak*: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikuluan aipatutako interesatuek eta erabakiaren aurka bozkatu duten korporazio kideek.
- d) *Inpugnatzeko arrazoiak*: Aipatutako abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak eta ordenamendu juridikoa urratzea.
- e) *Aurkezpenerako bulegoa*: Udaletxearen sarrera erregistroan, bulego orduetan.
- f) *Erreklamazioak jasotzen dituen organoa*: Udaltzarra.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharpenik jaso gabe, aipatutako Aurrekontu Orokorra behin-betirako onartutzat joko da, beste erabakirik hartzeko beharrik gabe.

Gaintza, 2018ko martxoaren 28a.—Gaizka Olaetxea Balerdi,
alkatea. (2313)